

Euskaldun odola

Txindokitik gatoz gu
alai hemen bera(bi aldiz)
ezin baita hutsegin
holako bilera
hizkuntza bakarrean
danok ari gera
beti horrela jardun
euskaldun bagera

Euskera ipintzeko
danon gaiñetikan(bi aldiz)
gure esku daukagu
ez da dudarikan
gero etzagun sortu
guk aitzekirikan
gehiago mintzatzea
falta bakarrikan

Ez dezagula utzi
guk gure biderik(bi aldiz)
nahi badegu euskeraz
jarraitu bizirik
hizkuntza ta herria
zutitu osorik
ez baitago munduan
beste euskadirik

Azkeneko honekin
behar det amaitu
guk nahi deguna beti
guztiok alaitu
euskaldunen indarrik
ez dezaten bahitu
gure hizkuntzan bidez
guztiok alaitu
danok bilduta zeïnek
zapalduko gaitu